



URTEKO MEMORIA 2018







EDUKIAK

04 Zuzendari Orokorren
mezua

06 2018, urte
emankorra

07 Negozio arlo guztietan
hazkundera

11 Mugarri garrantzitsuak

13 Irizar Marka

22 Iraunkortasuna

Irizar Taldeko Zuzendari Orokorraren mezua

Lankide eta lagun maiteak,

Berriro ere, Irizar Taldeak mugarri ugari eta garrantzitsuak izan ditu 2018. urtean.

Autokarrei dagokienez, urte osoan zehar Irizar i8 autokarraren ospeaz gozatu dugu, horixe izan baita Europako urteko Autokarrik onena. Gu guztiontzat plazera izan da, inoiz sentitu gabea genuen sentipena.

Autobus elektrikoek dagokienez, maiatzean Irizar e-mobilityren instalazioak inauguratu genituela nabarmendu nahi nuke. Gertakari garrantzitsua izan da hori, eta mugarria adierazi du Irizar Taldearen historian, iragana eta etorkizuna bereiziz.

Mugarri hauxe da, guretzat, industria dibertsifikazioaren adierazpen gorenena, eta bere azken helburua da, hain zuzen, ingurunean negozio berriak, aberastasuna eta enplegua sortzea, bai eta gure marka sortzea ere, zeina behin betiko lotuta geratuko den iraunkortasunarekin.

Marka, teknologia eta iraunkortasuna. Horiek dira gure taldearen estrategiaren hitz gakoak.

Aurreikusten genuen moduan, elektromugikortasuna dugu hiri askotako errealitatea, geroz eta erritmo biziagoan ari baita ezartzen.

Eskaera horri erantzuteko prestatuta gaude gu; betiere, 2014. urteaz gero martxan dabiltzan ibilgailu elektrikoak edukitzeak dakarkigun esperientziak emandako konfiantzatik.

Hori hala izanik, gaur egun, oso harro gaude autobus eta autokarren merkaturan produktu gama onenetako bat edukitzeaz, gure Taldearena den teknologiarekin, eta hasi eta buka irtenbide osoen aukerarekin, produktu eta zerbitzu guztietarako solaskide bakarra izateko moduan, eta, betiere, hobetzeko pentsamendua alboratu gabe, eta geroz eta gehiago, berorren ikuspegia herritarren ongizatera eta iraunkortasunera bideratuz.

Era berean, I+G proiektuetan lanean jarraitzen dugu, eta horri esker, lehiakorrek eta etorkizuneko teknologian lider izango gara (gidaritza autonomoa, energia biltegiatzea...).

Taldeko enpresa guztien artean sinergiak bilatzeko estrategia garatzen jarraitzen dugu, eta, bidenabar, bakoitzaren negozio arloetan produktuak eta merkatuak garatzen ditugu, gure autokar eta autobus elektrikoen gama osoan eta sistema nagusietan hobekuntza nabarmenak izateko asmoz.

Gure lantegi nagusian, Irizar markako autokar integralak gure ekoizpenaren heren bat dira dagoeneko, eta joera horrek gorantz jarraituko du, bi hauetan oinarrituta: batetik, esportazio merkatuetan duen hazkunderan, eta, bestetik, teknologia konbentzionaleko autokar integralen arloan zein teknologia hibridokoen arloan eskaintzen ditugun irtenbide askotarikoan.

Autokar belaunaldi berri bat merkaturatu dugu, abantaila teknologiko eta kontsumo abantaila askokoak. Autokar iraunkoragoak dira, kontsumo eta isurpen gutxiagokoak, konektatuak, prediktiboak, fidagarriak, isilak eta erregai kontsumoaren %6ko murrizketa dakartenak.

Hala, Irizarren zerbitzu eta salmenta sarea handitzen jarraitzen dugu.

2018an, banaketa eta salmenta osteko bi enpresa propio sortu ditugu AEBn eta Beneluxen, eta banaketa hitzarmenak sinatu ditugu Suedian.


Hala, sendotasunaren eta hazkunderaren bideari loturik jarraitzea dugu helburu, markari, teknologiarri eta iraunkortasunari dagokienez ahalik eta balio erantsirik handiena eskainiz gure bezero guztiei, eta hemendik bertatik lehiatuz, gure inguruneetan aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahiko nizkieke gure taldean denbora honetan zehar ahalegin itzela egin duten ezin konta ahala pertsonari. Eta, bereziki, eskerrak eman, bihotz-bihotzez, gure bezeroei, bidaia zoragarri honetan babesa eman digutelako eta gure alboan egon direlako.

Izan konfiantza gugan, ez dizuegu-eta hutsik egingo.

Eskerrik asko denoi!

José Manuel Orcasitas
Irizar Taldeko Zuzendari Orokorra



2018, urte emankorra



Negozio arlo guztietan hazkundera

Aurten ere, harro diogu Taldean hazkundera izan dugula. Oraingoan, Irizar Ormaiztegi eta Irizar Mexikok egonkortu egin dituzte aurreko urtean lortutako bolumen handiak: egunean 10etik gora autokar ekoizten dituzte bien artean. Bestalde, indarrez hazten ari dena Irizar Brasil da (%30).

Taldeko gainerako enpresetan ere hazkunde nabarmenak izan dira. Aipatzekoa da Jema Energy, aurreko urteko fakturazioa bikoiztu baitu.

Guztira, Taldearen fakturazio agregatua %9,5 hazi da (750 milioi €-tik gorakoa da), eta fakturazio bateratua 600 milioi €-tik gorakoa da jada.

Une honetan, Irizar Ormaiztegiaren fakturazioa guztizkoaren %42koa da, 300 milioitik gorakoa. Gainerako autokar lantegiena, berriz, %34koa, eta falta direnena, 180 milioi eurokoa (guztizkoaren %24koa).

Hazten jarraitzen dugu, hein handi batean produktu propioetan, autokar integraletan; izan ere, horiek dira Ormaiztegi ekoizpenaren herena.

Taldean 3.000etik gora Premium autokar fabrikatu ditugu, horietatik 1.300 baino gehiago Espainian, Europako merkatuentzat.


Guztizko horretatik 500 autokar Irizar markako ibilgailu integral edo elektrikoak izan dira.

€ 750 milioi fakturazioa


Hazkuntza produktu propioetan

Taldean 3.000etik gora autokar fabrikatu ditugu

Fakturazio agregatuaren garapena (milioi euro)



Sortutako enplegua



Irizar Mexikok lidergoa mantentzen du

Mexikoko merkatuak Irizar i8 modeloari egin dion harrera bikainari eta Irizar i6aren eta Irizar i5aren posizionamendu ezin hobeari esker, agerian geratu da produkturik errentagarrienaren gama sendotu egin dela. Hain zuzen, herrialde aztekan bidaiarien garraioaren beharrak asetzeko garatu da.

Modelo horiek bat datoz Irizar markaren balioekin, hau da, bezeroentzako segurtasun, erosotasun, fidagarritasun eta errentagarritasunarekin.

Irizar Mexikok marka balioak transmititzen ditu bere modeloetan –segurtasuna, konforta, fidagarritasuna eta errentagarritasuna erosleentzat–, eta lantegi horrek duen lidergoa, hain justu, bezeroekiko duen hurbiltasunaren, kalitatearen, lehiakortasunaren eta produktuen errentagarritasunaren ispilu da.

Urteko lehen seihilekoko salmentek diote Irizar Mexikok merkatuan lider izaten jarraituko duela, egunean 4 autokar ekoitzita; hots, 900 unitate inguru. Zifra 2017koaren antzekoa da, eta merkatu kuota %60aren gainetik mantentzea ahalbidetzen du, bezeroek Irizar marka lehenesten dutela berretsiz.

“Urteko lehen seihilekoko salmentek diote Irizar Mexikok merkatuan lider izaten jarraituko duela, egunean 4 autokar ekoitzita; hots, 900 unitate inguru.”



Ekoizpen instalazioak hobetzen dituzten inbertsioak

Margo eta prozesuaren birdiseinurako instalazio berrietan egindako inbertsioari esker, Irizar Mexikok punta-puntako kabinak ditu gaur egun, eta, hala, honako hauek lortzen dira: hobekuntza bezeroari eskatzen zaion zerbitzuan eta kalitatean, eta prozesu iraunkorrago bat, energia eraginkortasun handiagokoa eta Europako araudiak adierazitako eskakizun mailak betetzen dituzten isurpenak dituen.

Era berean, 3.500 metro koadroko nabe berri bat eraiki da, unitateen akaberako prozesua eta kalitateko berrikuspenak egiteko gune eskusibo batekin. Lantegiaren barruan tunel bat ere badago, estankotasun probak egiteko, bai eta pinturarako bi kabina, eta bezeroari eman aurretik, autokarrak garbitzeko eta prest jartzeko espazioak ere.

Inbertsio horiek agerian uzten dute Mexiko zeinen garrantzitsua den Irizarrentzat. Taldeak bezeroari hurbiltzeko eta haren zuzeneko harremana izateko duen estrategia nagusiari jarraiki, haren leialtasuna eta konfiantza lortzen du.



Irizar Brasil

Hazkunde handia

Kasu honetan, agerian geratu da batzuetan krisialdiak onak direla estrategiak berritzeko, eta enpresak euren pentsaera berrasmaztera eta produktuak aldatzera derrigortzeko, bai behintzat lehia inguruan bizirik iraungo badute.

Irizar Brasil, hain justu, azken 20 urteotako krisi ekonomiko eta politikorik larrienetakoa igarotzen ari da. Ziurgabetasuna zabaldu da herrialdearen etorkizunaz, eta herrialde horixe jo dute munduko zortzigarren potentziatzat.

Ingurune horretan, Irizarrek bere estrategia erabat iraultzeko erabakia hartu zuen, eta pentsatu zuen esportazio merkatuetarako soilik fabrikatzea. Hala, merkataritzaren arloan egin zuen inbertsio handia, salmenta ostea indartuz eta garraioaren sektorearen ezaugarri guztietara berrikuntza ekarriz.

Gaur, harrotasunez esan dezakegu estrategia berri horren fruituak jasotzen ari garela; izan ere, hazkunde egoeran gaude, krisialdiaren aurreko sasoiaren atzeko mailletara iritsita.



Peru

Herrialde horretan Irizarrentzat oso txikiak ziren zifrekin hamarkada bat igaro eta gero, orain, Irizar Brasilen hiru merkatu esportatzaile nagusien artean dago Peru.

Estrategia komertzialaren eta saldu osteko eta bezeroengana hurbiltzeko strategiaren ondorioz, Irizarren partaidetza %5 baino gutxiago izatetik %30 izatera igaro da 2017an. Soluzio berritzaileak, esaterako, Business klaseko lehen jarlekua, etzateko sistema elektrikoarekin, funtsezkoak izan ziren lurralde berriak konkistatzeko, eta Irizar Turismoaren Sektorerako lehentasunezko erreferente moduan finkatzeko.

Irizar i6aren segurtasun eta erosotasun ezaugarriak erabakigarriak dira Irizarrek meatzaritzako garraioan duen presentzia handitzeko, Perun horixe baita gehien hazten ari den garraio sektorea. Bi pisuko operazioei lotutako kostu handiek lagundu egin zioten Irizarri bezero berriak lortzen i6arekin, karga garraiatzeko ere prestatuta baitago.

Australia

Australian, Irizar Asia Pacific dugu, zeina %100 Irizarrena den. Herrialdean banatzaile batekin hasi ondoren, komunikazio lotura handia lortu du Irizar Brasilekin, lana fidagarritasuna hobetzera eta tokiko pertsonalizazio aukera berrietara bideratuz.

Eta horri salmenta osteko estrategia berri bat gehituz gero, emaitza gisa dugu 10 urtean aurrenekoz Irizar bihurtzea, aurten, merkatuko lider, %20ko kuotarekin, hango fabrikatzaile nagusia gaindituz. Uztailan Irizar i6S merkaturatu zen, eta arrakasta handia izan du. Horrek, seguru asko, hazkunde gehiago ekarriko ditu berekin.



Hegoafrika eta Afrika mendebaldea

Hegoafrikak eta Afrika mendebaldeak ahalegin handia eskatu diote Irizar taldeari, baina baita garaipen asko ekarri ere.

Hegoafrikako araudiaren aldaketaren ondorioz, 15 m eta pisu bakarrekotako autokarrak nagusitzen dira, eta, horrenbestez, operadoreek erabaki dute bi pisuko lan garestiak alde batera utzi, eta Irizar i6a irtenbide berritzaile bihurtzea, flota berritzeko orduan. Hegoafrikako merkataritzan duen presentzia handiari esker, Irizar bihurtu da merkatuko lider 2017an, eta aurreko urtearekin alderatuta, bikoiztu egin du unitateen bolumena.

Aurtengo uztailean, Irizar i6Sa ere sartu da merkatu horretan, eta oso harrera ona egin diote. Beraz, egoera ezin hobea dela dirudi.

Sasoi zailetan eta lehia inguruetan, Irizar Taldeak aukerak bilatzeko eta hazteko gai dela erakutsi du, eta argi utzi du merkatuan presentzia edukitzea eta salmenta osteko zerbitzua gakoak direla gaur egungo bezeroei eusteko eta flota berriak konkistatzeko.

Txile

Txilen, oinarritzko produktuen prezioetan bi urtez krisian egon ondoren, Irizarren partaidetza sendotu egin da turismoaren eta ibilbide luzearen segmentuetan. Legediaren aldaketaren ondorioz, 15 m-ko ibilgailuak onartu ziren, eta horrek aldaketa garrantzitsua eragin zuen pisu bakarrekotako autokarren merkaturako. Ondorioz, kuota irabazi zen bi pisukoaren aurrean, eta Irizarren salmentak handitu egin ziren Txilen. Irizarren merkatu kuota %20ra arte hazi da 2017an; 2016an, %10ekoa zen. Irizar i6S merkaturatu izanak ere lagundu du hazkunde horretan.

Irizar Maroko

Marokon, ekoizpen marka hautsi da berriz ere aurten. Bi arrazoi daude horretarako: herrialdeko luxuzko merkatuari erantzutea, eta Irizar Ormaiztegiarekin lankidetzan aritzea, Europako merkatuetarako Irizar i6 modeloa fabrikatzen.

i6S modeloa ekitaldi honetan merkaturatu da, gure tokiko bezero handienaren luxuzko unitateetarako. Gaur egun, bi modeloak eskaintzen ditugu merkatu horretan, non Irizar den liderra, Premium segmentuan %90etik gorako kuotaekin.



Irizar e-mobility

Elektromugikortasuneko gure enpresa aurtengo maiatzean inauguratu zen ofizialki, eta, beraz, oraingoa izan du lehen ekoizpen urtea.

Lehenengo urte honetako ekoizpena 100 unitatetik gorakoa izan da, eta bolumenari dagokionez, zero isurpeneko autobus elektrikoen fabrikazioa nabarmendu da, Frantzia zein Espainiarako.

Irizar ie truck kamioi elektrikoaren lehenengo bi prototipoak ere fabrikatu dira. Bartzelonan aurkeztu ziren, urte amaieran egin zen Smart Cities azokan.

Irizar Taldea nabarmen hazten ari da arlo guztietan

Gure elektronika eta energia konpainia, **Jema Energy SL**, izan da bolumen hazkunde handiena izan duena: aurreko urteko fakturazioa bikoiztu du.

Bere negozio unitate guztietan izan du hazkundera, bereziki nabarmena izanik elikadura iturri seguruena, bere sistema aurreratuen arlorako.

Lagungarria izan da bere hazkundera, halaber, autokar eta autobus elektrikoentzako integrazio elektronikoko osagaien eta softwarearen hornidura.

Taldean hazkunderik handiena izan duen bigarren enpresa **Datik** izan da, izan ere, indartsu ezarri da Espainiako merkatuan, eta batez ere Mexikokoan. **Taldeko gainerako konpainiek** ere hazkunde handiak izan dituzte, hein batean, merkatu berriengatik eta kuotak handitzeagatik, eta, horrez gain, talde barneko fakturazioak handiak egiten ari direlako elektromugikortasun programen garapenean.



Mugarri garrantzitsuak

Irizar e-mobilityren instalazioen inaugurazioa Elektromugikortasunaren Europako lehen lantegia

2018ko maiatzean, Irizar e-mobility ekoizpen lantegi berria inauguratu zen. Autobus elektrikoaren fabrikazioan ez ezik, hirietako elektromugikortasun premiak aseko dituzten bestelako ibilgailu industrial mota batzuen fabrikazioan ere badiharduen lantegia da.

Inaugurazio ekitaldian, mundu osoko 500etik gora pertsona bildu ziren; tartean, EAEko agintari gorenak, bai eta hainbat erakunde, bezero, prentsako kide eta kolaboratzaile ere.

Ekitaldian, Irizar e-mobility, Irizar ie tram, Irizar ie bus eta Irizar ie truck gamako 3 ibilgailu jarri zituzten ikusgai agertokian, eta horietatik jaitsi ziren Jose Manuel Orcasitas, Irizar Taldeko CEO, Hector Olabe, Irizar e-mobilityko zuzendari nagusia, eta Teresa eta Josu, bi ingeniari gazte,

Irizar e-mobility enpresako langile taldearen ordezkariak, zeintzuek hau guztia posible egin duten, euren ahalegin, grina eta ardurarekin.

Gazte horiek, halaber, konpromisoaren, talentuaren eta ezagutzaren ordezkariak dira, eta balio horiek zinez garrantzitsuak dira gure etorkizunerako.

Ekitaldirako prestatutako led pantaila erraldoian ikusgai jarri ziren Irizar Taldearen eta Irizar e-mobilityren sekretu eta indargune guztiak. Iru-di eta baliabide eskerga, zeintzuek Irizar e-mobilityk berezkoak dituen balioak indarra eta energia, etorkizuna, izaera, bizitza, freskotasuna eta teknologia eta haren claim nagusia "for a better life" transmititu zituzten.





Datu garrantzitsuak

- Lantegiak 37.000 m²-ko azalera dauka, eta urtean 1.000 ibilgailuko hasierako ekoizpen ahalmena.
- Lantegia eraikitzeko elementu berritzaileak eta abangoardiazko irtenbideak erabili dira; eta berebiziko arreta eskaini zaie eko-iraunkortasuna definitzen duten kontzeptuei.
- Energia berdeko lantegia da. Kontsumitzen den energia elektriko guztia eguzki energia fotovoltaikoaren lantegi batean sortzen dugu.
- Instalazioek saiakuntza banku eta probetarako pista propioak dituzte, ekipamenduen fidagarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko eta ibilgailuek daramaten teknologia, osagaiak eta sistematik kontrastatzeko.
- Abangoardiazko lantegia da, zeinak aberastasuna eta enplegua sortu dituen (lehenengo 200 lanpostuak; batez besteko adina: 28 urte), eta ezagutzari zein talentuari ateak ireki dizkien, lehenasunezko gaia baita hori gure berrikuntza eta sormen teknologikorako gaitasunak garatzeko, eta etorkizuneko erronkak gainditzeko.
- Enpresako teknikarien batez besteko adina 28 urte ingurukoa da. Pertsona horiek konpromisoa dute eta grinatsu jotzen dute gure proiektu garrantzitsuekin, alegia, mugikortasuna eraldatzeko egiten diren proiektuekin.

Irizar ie truck

Irizar Taldearen lehenengo ibilgailu industrialia

Hirien elektrifikazioaren ikuspegi orokorrak eta karga azpiegiturekin sinergiak bilatzeak, Taldean sortutako ahalmen teknologikoarekin batera, gure produktu sorta zabaltzea ahalbidetu digute, eta hirietarako ibilgailu industrialei ere ireki dizkiegu atea.

Halaxe jaio da Irizar ie truck modelo; alegia, hirietan hainbat industria erabileratarako pentsatutako kamioia, mugikortasun elektrikoko bokazioa duena. Hiri hondakinak jasotzea du lehen erabilera.

Aurrekaririk ez duen berrikuntza teknologiko hau Irizar e-mobilityren lantegia inauguratzean aurkeztu zen, Irizar Taldeak duen ahalmen teknologiko handiaren froga gisa.

Irizar ie truck modelo ez da kamioi konbentzional bat. Kamioi honen estetikak hautsi egiten ditu gaur egungo kamioien kontzeptu estetikoak, baina Irizar markako produktuen ildoak gogorarazten ditu. Hiri-ingurunean erabiltzeko diseinatutako produktu honen ezaugarri bereziak dira, besteak beste, diseinu estetiko leun eta berritzailea, operadoreen segurtasuna eta ergonomia, teknologia, eta merkatuaren premietara egokitzeko malgutasuna.

“Hirietan hainbat industria erabileratarako pentsatutako kamioia, mugikortasun elektrikoko bokazioa duena.”



Europako hiriak elektrifikatzen jarraitzen dugu

Irizar e-mobilityn erabat prest gaude Europako hirietako garraio publikoa elektrifikatzeko. Mugikortasun soluzio orokorren aukera zabala dugu, bezero bakoitzaren beharretara egokitutakoak; goitik behera Irizar Taldean garatutako abangoardiazko teknologia duten produktu eta zerbitzuekin, bai eta soilik horretara bideratutako ekoizpen lantegi batekin eta konpromisoa hartu duten pertsonekin ere.

Gainera, aipatzekoa da salmenta osteko zerbitzu eskusibo eta kalitatezko bat ezartzea erabaki dugula, R&M pakete pertsonalizatuak eskainiko dituen zero isurpeneko Irizar autobus zerbitzu lineak dituzten hiri guztietan. Zerbitzu hori, hain zuzen, presente gauden ingurune guztietan kontratatutako pertsonak kudeatuko dute, eta, era horretan, tokiko aberastasuna eta enplegua sortzen lagunduko dugu.

Informazio gehiagorako sartu Irizar e-mobility-ren webgune berrian:

www.irizar-emobility.com



Irizar marka

Etorkizunerantz emandako aurrerapausoak

2018. urtean, salmenta eta zerbitzu sarea zabalduz joan da, eta gaur egun, gure autokarrak dabilzan toki guztietan aurki ditzakegu salmenta osteko zerbitzu eskusiboak, kalitatezkoak eta bermedunak, R&M pakete pertsonalizatuak eskaintzen dituztenak. Zerbitzu hori, bestalde, tokian kontratatutako pertsonak kudeatzen dute. Hartara, hedatzen garen herrialde guztietan aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen dugu.



Markaren ezarpen berriak merkatuetan

Irizar, Suedian

Irizarrek, Lecab suediar talde indartsuarekin akordioa sinatu ostean, dagoeneko egin du bere txokoa Suedian. Produktu sorta zabal batekin egin du; besteak beste: Irizar markako autokar integralak, autokar hibridoak, HVO (landare jatorriko erregai hidrogenatuak), Scania xasiseko ohiko autokarrak, eta hirietarako elektromugikortasunerako soluzio integral pertsonalizatuak, nola zero isurpeneko autobus elektrikoei dago-kienez, hala energiaren karga, trakzio eta biltegiatze sistema nagusien instalazioari dagokionez.

Irizar Benelux

Irizarrek, halaber, Irizar Benelux sortu du. Luxenburgon du egoitza, eta hor helduko dio bai bere autokar integralen bai autobus elektriko eta dukerriko hiriburuan dagoeneko entregatu diren elektromugikortasuneko soluzio osoen salmenta eta salmenta osteko lanari.

Alemania, Austria eta Suiza

Alemanian, Austrian eta Suitzan Irizar markako elektromugikortasuneko soluzioak Ferrostaal Equipment Solutionsen bitartez eskainiko dira, oraintxe sinatu baitute lankidetzaz hitzarmena. Hitzarmen horren baitan dago jasota autokarren salmenta, proiektuen kudeaketa eta salmenta otea.

Irizarrek eta Ferrostaal Equipment Solutionsek ikuspegi holistikoa emango diete bezeroei; hots, norbanakoaren premietara hobekien ego-kitzen den soluzioaren analisia, azterketa eta aukeraketa.

Italian

Italian, azken 25 urteotan, Irizar erreferentea da autokarren merkatuan, Irizar Italia bereizgarriaren pean. Han, autokarren eskaintza ugaldtu egin da, autokar integralak ere eskainiz, enpresaren zati handienez egin-dako kontrol hartzearen ondoren. Italian egindako salmenta guztien %75 Irizar markako autokarrenak izan dira.

Gainera, Irizar Taldeak merkatu horren alde egindako apustu handiaren ondorioz, Irizar Italiaren produktu eta zerbitzuen gaur egungo eskaintza zabala are gehiago ugaldtu da, Irizarren elektromugikortasun produktu eta zerbitzuen linea osoarekin.

AEBn

Amerikako merkatuaren interesari eta harrerari erantzunez, Irizarrek beste aurrerapauso bat eman du, eta enpresa propio bat sortu du Estatu Batuetan: IRIZAR USA LLC. Enpresak Las Vegasen (Nevada) du egoitza, eta lantalde kualifikatu bat dauka; horietako batzuk lehendik ari ziren etxearentzat lanean.

Produktu egonkortu bat dauka, Estatu Batuetako merkatuari behar bezala egokitutakoa. Orain, etapa berri bat hastera doa, eta ilusio berriekin, Irizarrek indartu egingo du bere presentzia, eta parte hartze handiagoa izango du proiektuan.

Merkatu helduak: Espainia, Frantzia eta Erresuma Batua

Aurretik esandakoari Espainia, Frantzia eta Ingalaterrako merkatuen bilakaera positiboa gehitu behar diogu -bertan hazi egin da Irizar, eta nabarmentasun handia lortu du-, bezeroek markak eskaintzen duen fidagarritasuna, diseinua eta zerbitzua preziatzen dutelako. Beraz, argi dago erreferentzia nabarmen bihurtu dela Irizar, nola distantzia luzeko edo eskatu ahalako zerbitzuko operadoreentzat (Irizar i6S autobusarekin), hala turismo handiko eta VIP autoetako operadoreentzat (Irizar i8 autobusarekin).

Irizar autokarren azken belaunaldia

Hobekuntza teknologiko eta kontsumo hobekuntza handiak

Irizar autokarren azken belaunaldia aurkeztu dugu Europan. Zehazki, autokar integraletan egindako hobekuntza handien fruitua izan da, bai eta Paccar-DAF motor berriak eta ZF transmisio sorta berria txertatzearen fruitua ere. Autokar iraunkorragoen, kontsumo eta isurpen gutxiagokoen belaunaldia da; autokar konektatuak dira, prediktiboak, fidagarriak, isilak eta erregai kontsumoa %6 murrizten dutenak, bai eta Kostu Operatibo Osoa %5etik gora murrizten dutenak ere.

Dauzkan berrikuntza teknologiko guztien artetik PreVision GPS izenokoa nabarmentzen da. Gidatze prediktiboko estrategia ahalbidetzen du, martxa aldaketen sekuentzia bidearen topografiara egokituta. Irizar

“eskaeraren arabeko potentzia” kontzeptuan zentratu da, potentzia soilik zerbitzua eskatzen zaienean kontsumitzen duten sistemetan sakonduta.

Autokarretan sartutako beste berrikuntzetako bat, hain justu, Irizarren erloju koadro birtuala da. Koadro horrek funtzio berritzaileak eskaintzen ditu, maila teknologikoan nahiz kalitatekoan. 12,32"-ko bereizmen handiko pantailak koloreko diseinua dauka, dinamikoa eta intuitiboa, eta informazioa modu osoan eta moldagarrian erakusten du, unean uneko premietara egokituta.

 [Irizar autokarren azken belaunaldia bideoa](#)



Irizar i8

Coach of the Year

2018. urtean zehar, Irizar i8 autokarrak Europako 2018ko AUTOKARRIK ONENAREN saria jaso du

Saria Irizarrek azken urteetan egindako jauzi estrategiko handiaren ordaina da, eta Europako sektoreko fabrikatzaile independente (OEM) onenen artean kokatzen gaitu.

Euro Coacheko balaztatze eta azeleratze saioetan, eta autobide eta bigarren mailako errepideak nahasiz osatutako 30 km-ko errepideko gidatze probetan ibilgailuak izan duen errendimendua eta portaera bikainak eman diote saria Irizar i8 modeloari.

 [Irizar i8-Coach of the Year bideoa](#)



Iraunkortasuna

Marka, teknologia eta iraunkortasuna dira Irizar Taldearen etorkizuneko estrategiaren hiru zutabe nagusiak. Horrenbestez, oinarritzko printzipio korporatiboa da iraunkortasuna, Irizarren etorkizunerako balio bereizle garrantzitsu eta ezinbestekoa.

Epe luzera bikaintasun iraunkorraren bila (arrakasta iraunkorra) egingo ditugu ahalegin guztiak, nola maila ekonomikoan, hala humanoan zein ingurumenari dagokionean. Horregatik, modu iraunkorrean jarduten dugu, egunetik egunera lehiakorragoak izateko, epe luzerako aberastasuna eta enplegua sortzeko, eta gure interes talde, pertsona, bezero, kolaboratzaile eta gizartearen premiak asetzeko. Era berean, ingurumena zaintzea eta etorkizuneko belaunaldientzat ingurunea babestea proposatu diogu geure buruari. Izan ere, gaur hartutako erabakiek historiaren zein etorkizunaren bilakaera alda dezakete.

2013. urteaz gero, konpromisoa daukagu Nazio Batuen Munduko Ituneko hamar printzipioekin; zehazki, giza eskubideei, lan eskubideei, ingurumenari eta ustelkeriaren kontrako borrokari dagozkionak. Aurreantzean, gainera, NBEren 2030eko agendako Garapen Iraunkorrerako Helburuak izango dira gure etorkizuneko garapenaren eta gure eguneroko jardunaren esparrua.

Irizar Taldean txertatutako iraunkortasun estrategia bat lortu nahi dugu, balio kate osoan zehar epe luzeko helburuak ezarriz.

Gure erakundearen baitan iraunkortasun kultura barne hartzen duten helburuak dira, produktuari, prozesuari, hornitzaileei eta lanean diharduten pertsonari dagokienez. Horregatik, iraunkortasun gaiak indartzen eta sakonago aztertzen hasi gara aurtan.

Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu Irizarren Iraunkortasun memoria



